

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2623

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Hierros Manu, SL enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa. Andoaingo (Gipuzkoa) Balas-train poligonoko 5. lurzatian, A, B eta C nabeetan, hondakinak kudeatzeko jarduera du Hierros Manu, SL enpresak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-baimen bakarraren funtsezko aldaketa egiteko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bakarraren mende jartzen du titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustatzea, baldin eta I.B. eranskinean jasotako jardueraren bat egiten bada.

Ingurumen-baimen bakarraren bidez, egintza bakar batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldeztu aurretik emandako administrazio-prozedura bakar batean integratuko dira hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsas-lehorreko jabari publikora nahiz atmosferara isurketak egiteko baimenak, eta kasuan kasuko isurtzeko muga-balioak finkatuko dira, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak 46. artikuluan ezartzen duenez, eskabidea aurkeztu eta aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatu ondoren, instalazioa edo jarduera funtsean aldatzeko proiektua jendaurrean jarriko da hogeit hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Zabalkunde handiagoa izan dezan, iragarki hori jarduera edo instalazioa dagoen lurraldeko udalari jakinaraziko zaio, tokiko erakundeak bere ediktu-taulan jar dezan.

Horregatik guztiagatik, AAU01262_MS_2026_001 espedientea jendaurrean jarri behar da, hogeit hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako alegazioak edo oharak aurkezteko.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 5a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

ERANSKINA

Espediente-zenbakia	Instalazioa	Udalerria
AAU01262_MS_2026_001	Hierros Manu, SL	Andoain